


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO UZTAILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek % 0,1 gora egin zuten, 2004ko uztailean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko uztaila, 2003ko uztailearen aldean), eraikuntzaren kostuak % 5,6 handitu dira.

2004ko uztailean, % 0,1 goratu zen Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea, aurreko hilaren aldean, eta, horrenbestez, hil horretako urte arteko tasa % 5,6koa da, Eustatek eskainitako datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Gehikuntza maiatzeko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko uztailean, lan-eskuaren kostuak ez du aldakuntzarik izan (% 0,0); lehengaien kostuak, berriz, % 0,2 hazi dira.

Eraikuntza eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera ezberdina izan dute lehengaien kostuetan: eraikuntzarenak % 0,1 gehitu dira aurreko hilaren aldean; eta obra zibilarenak, % 0,5, lau hamarren gehiago, alegia. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, kontsumitzen dituzten lehengaei dagokienez, ikusten da biek bide homogeneoagoak egin dituztela: *eraikuntza* eta *obra zibila* azpisektoreetan, lehengaien kostuak % 6,5 eta % 6,7 igo dira, hurrenez hurren.

Uztailean, lehengai hauek izan dira euren prezioetan hazkunderik handienak izan dituztenak: *petroliotik eratorriak* (% 5,1), *asfaltozko produktuak* (% 4,3), *metalezko hodiak* (% 2,9), *makineria erabilirako osagarriak* (% 2,1) eta *energia elektrikoa* (% 2,0).

Aitzitik, hileko batez besteko prezioetan murrizketak izan dituzte *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (% -3,2), *karea, igeltsua eta eskaiola* (% -2,1), *burdina eta altzairua* (% -0,9) eta *aparatu eta material elektrikoa* (% -0,4) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteen, hauek izan dira inflazio-tasarik handienekoak: *metalezko hodiak* (% 38,2), *burdina eta altzairua* (% 25,2), *asfaltozko produktuak* (22,1%), *petroliotik eratorriak* (% 14,8) eta *zementutik eratorritako gaiak* (% 7,8), batik bat. Bestalde, murrizketak izan dituzte urte arteko prezioetan (2004ko uztailera, 2003ko uztailera alderatuta) *harri landua* (% -7,2), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (% -3,8), *energia elektrikoa* (% -3,7), *bulegoko materiala* (% -2,1), *leherkariak eta gasak* (% -1,0), *beira* (% -0,7) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (% -0,2) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA		2004KO UZTAILA		
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	113,5	0,1	5,6	5,6
ERAIKINAK	113,4	0,1	5,6	5,6
OBRA ZIBILA	114,3	0,3	5,6	5,4
LEHENGAIEN KOSTUA	110,5	0,2	6,5	6,4
ERAIKINAK	110,5	0,1	6,5	6,4
OBRA ZIBILA	110,8	0,5	6,7	6,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 017 505. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es